


6 mantangorri



CO AZOKA LIBURUA

Izenburua: 'Txikitzen zaretenean'.
Egilea: Uxue Alberdi. **Marrazkiak:** Aitziber Akerreta. **Orrialde kopurua:** 32 orrialde, koloretan. **Argitaletxeak:** Pamiela eta Kalandraka.

T xikitzen direnean, bestelako mundu bat badela ohar-tuko dira gurasoak. Mundu horretan ez dute lanera joan beharrik izango, eta ez dute denborarik galduko eztabaidan. Txikitzen direnean, gainera, denbora salabardoarekin harrapatu, kristalezko potoan sartu eta gauza garrantzitsuetan era-biltzen ikasiko dute. Ai, zenbat gauza egin ahal izango dituzten gurasoek, txikitzen direnean... Haurren begietatik kontatzen dira gauza horiek guztiak. Loak hartu aurretik, haurrek gurasoei kontatzeko ipuina da. Kalandrakak eta Pamielak batera ateratako liburua da, eta aldi berean argitaratu da euskaraz, gaztelaniaz eta galegoz.

Nondik atera zenuen ideia?

Orain dela pare bat urte, bitxikeria bat kontatu zidan Jon Maia bertso-lariak. Haren alaba txikia zela, mahaizpian etxetxo bat egin zuela kontatu zidan Maiak. Haurrek barrura sartzeko eskatzen zion aitari, eta Jonek ez zela kabitzen esan zion -1,90 metro neurzen du-. Mahaizpitik burua atera, eta halaxe esan omen zion alabak: «Lasai, aita, txikitzen zarenean, kabituko zara».

Handik denboratxo batera, Aitziber Akerreta ilustratzailearen deia jaso nuen. Erditu berri nengoengarai harten. Etxepare sarira lana aurkezu nahi zuela esanez deitu zidan, eta istorio bat sortuko ote nuen galdegin zidan. Maiaren istorio horretaz oroitu nintzen orduan. Halaxe sortu zen liburua.

Liburu honetan, haurrek kontatzen dizkiete ipuinak gurasoei, eta ez alderantziz.

Istorio honetan buelta ematen zaio ohiko egoera bati, bai. Handi-tzen direnean gauza bat edo beste egingo dutela edo hau edo beste



Uxue Alberdi

IDAZLEA

«Haurren begirada berreskuratzen saiatu naiz, idazterako unean»

ulertuko dutela esan ohi zaie haurrei. Kasu honetan, baina, alderantzizko egoera bat aurkezten da. Badirudi gure gizartean kontuan hartzen den bizitzako aro bakarra helduaroa dela. Ez umeei, ez gaztetxoei, ez zaharrei ez zaie ezer galdezen, haien iritziak ez dira kontuan hartzen. Liburu honetan erakusten da haurtzaroan badirela helduaroan disfrutatzen ez diren gauza pila bat. Heldu izatearen

kontzeptua nola ulertzen dugun, horrekin du zerikusia istorioak. Liburuan aipatzen diren pasarte gehienak lotuta daude helduok heldu izateaz dugun kontzeptuarekin: geure buruari ez diogu baimentzen jolas, biluztasuna, irudimena...

Txikien mundua erakutsi nahi izan duzu, beraz.

Haurren mundua erakutsi baino

gehiago, haurren mundutik kontaktu dut istorioa. Haurren begirada berreskuratzen saiatu naiz, idazterako unean. Haurren eta helduen artean dagoen lubakia erakusten saiatu naiz. Haurren eta helduen arteko lubaki edo amildegi hori maiz guk geuk sortzen dugula erakusten saiatu naiz; ez daukala zertan horrela izan ikusarazi nahi nuen. Gure alabak orain bi urte egingo ditu, eta hari esker konturatua naiz zenbat gauza irabazten diren haren munduan edo haren denboran sartzean.

Erraza izan da haurren begietatik begiratzea?

Egia esan, erraza egiten zait. Nahi-kon presente daukat nire haurtzaroa eta nola bizi nituen helduen mundua eta nire mundua ume nintzenean. Oraindik, nahiko bizirik daukat barruan izan nintzen ume hori, eta ez zitzaidan batere zaila egin. Haur txiki bat alboan izateak ere lagunduko zidan, beharbada. Haur izatea eta nerabe izatea ez dela batere erraza uste dut, eta maiz gutxietsi egiten ditugula haur garaiko tristurak eta zaitasunak.

Gustura zaudet Aitziber Akerretarekin elkarlanean sortutako lanarekin?

Aitziberren eta bion arteko elkarlanaren emaitza da liburua. Ideiak edo esaldiak bururatu ahala Aitziberri bidaltzen nizkion, eta hark ilustratu egiten zituen. Marrazkia egin orduko, bueltan bidaltzen zidan hark. Beraz, fisikoki egon gabe, elkarlanean sortu genuen istorioa. Ilustratzaileek ez dute idazlearren lana apaintzen soilik, sortu egiten dute, beste mundu bat sortzen dute. Izan ere, istorioan aipatzen ez ditudan gauza pila bat daude ilustrazioetan: haurren keinuak, gorputz jarrerak, janzkerak... Marrazkiak oso-oso politak direla uste dut.

Pozik emaitzarekin, beraz?

Bai, oso gustura. Kalandrakako edizioak oso-oso politak dira, gainera. Liburua aldi berean argitaratu da euskaraz, gaztelaniaz eta galegoz, eta oso gustura nago. Hori ere esperientzia berria da guretzat. Orain ikusi egin behar liburuak nola funtzionatzen duen hemen eta hemendik kanpo.